

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2013/2014 ikasturtea**

**DIMAN ENTZUNDAKOAK**

**Egilea: Naia Egusquiza Sanchez**

**Zuzendaria: Iñaki Gaminde Terraza**

**Leioan, 2014ko ekainaren 12an**

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	6
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera .....	7
1.1. Soziologia .....	7
1.2. Kultura ondarea .....	9
1.3. Umearen garapena eta curriculuma .....	10
1.4. Hizkuntza aniztasuna .....	11
1.5. Europa .....	12
1.6. Euskal Herria .....	13
1.7. Dimako aurrekariak .....	14
2. Corpusa eta metodologia .....	15
2.1. Datuen bilketa .....	16
2.2. Datuen trataera eta analisisa .....	17
2.3. Aplikazioa .....	18
3. Lanaren garapena: datuen analisisa .....	18
4. Emaizak eta ondorioak .....	22
5. Erreferentzia bibliografikoak .....	24

### ERANSKINAK

1. Eranskina. Inkesta eredua .....	27
2. Eranskina. 1933ko eskola testigantza .....	28
3. Eranskina. Olgetak .....	32
3.1 Atzenka. ....	32
3.2 Denderitas .....	32
3.3 Etxetxoka.....	32
3.4 Harri ondo ondo gorde .....	32
3.5 Ixerka .....	33
3.6 Kinkinera .....	33
3.7 Kunak eitera .....	33
3.8 Salka .....	33
3.9 Soka saltue .....	33

3.10	Tabak .....	34
3.11	Txankolinke/Txankorrinke .....	34
3.12	Txapetaka .....	34
3.13	Txibilibilinke/Txori buru handi .....	35
3.14	Trenabioska .....	35
3.15	Xibiroa .....	35
3.16	Txopolinke .....	35
3.17	Txirrindolea .....	35
3.18	Ostontaka .....	35
3.19	Txorro morroka .....	36
3.20	Beste batzuk .....	36
<b>4.</b>	<b>Eranskina. Kantik .....</b>	<b>37</b>
4.1	Lo kantik.....	37
4.1.1	Aitite dala Kukulunberde .....	37
4.1.2	Logure naz .....	37
4.1.3	Obabatxue .....	37
4.1.4	Txikitxu polit hori .....	37
4.1.5	Txikitxue zera .....	37
4.2	Olgeta kantik .....	38
4.2.1	Arre arre mandako .....	38
4.2.2	Din dan nor hil de? .....	38
4.2.3	Eragiozu .....	38
4.2.4	Kukurruku zer dakazu? .....	38
4.2.5	Lehenengotxu hori .....	38
4.2.6	Txalo pin txalo .....	38
4.3.	Errezitatuak .....	39
4.3.1	Atxean motxean .....	39
4.3.2	Atzamarrana .....	39
4.3.3	Sagu, saguzarra .....	39
4.3.4	Txirintxaketan .....	39
4.4.	Jai egunetakoak .....	39
4.4.1	Urte barri barri .....	39
4.4.2	Erregen erregen .....	40

4.4.3 Kandelario Ierio .....	40
4.4.4 Santa Ageda .....	40
4.4.5 Ama Birjinari .....	40
4.4.6 San Antonio .....	40
4.4.7 Urkiolara Joan .....	40
4.4.8 San Juan .....	41
5. Eranskina. Ipuinak.....	42
5.1 Abadearen txakurra .....	42
5.2 Aite eta semea .....	43
5.3 Dendakoa .....	44
5.4 Erratue .....	44
5.5 Es pequeño y .....	44
5.6 Ferietik bueltan .....	45
5.7 Frailea .....	45
5.8 Jentilzubi .....	45
5.9 Joskileana .....	45
5.10 Krideana .....	45
5.11 Laminak .....	45
5.12 Soldadu Joan Zana .....	46
5.13 Sorginak .....	46
5.14 Trena .....	46

## DIMAN ENTZUNDAKOAK

**Naia Egusquiza Sanchez**

UPV/EHU

Behar honen helburua Dimako kultura ondarean oinarritutako ahozko literatura batzea eta hori eskolan aplikatzeko jarduera didaktikoen bidezko proposamena egitea izan da. Beharraren nondik norakoak hiru atal nagusitan banatu ziren. Lehenengo, bibliografia arakatzuz marko teorikoa sortu zen. Bigarrenik, material berriak bildu ziren bertatik bertara, dokumentu berriak sortuz. Hirugarren zurkaitza materialok moldatuz eskolarako aplikazio didaktikoaren proposamena zen. Jasotako materialak curriculumaren arabera aukeraketa didaktikoa eginez sailkatu ziren eta IKTak erabiliz eskolarako jarduera didaktikoak sortu ziren.

*Ondare kulturalaren didaktika, Ahozko literatura, Eskola, IKTak, Corpora*

El objetivo de este trabajo ha sido recoger la literatura oral basada en el patrimonio cultural de Dima y proponer una aplicación para la escuela mediante actividades didácticas. Las líneas generales de este trabajo se dividieron en tres secciones principales. Primero, se creó el marco teórico analizando la bibliografía. Segundo, se recopilaron materiales nuevos in situ, creando documentos nuevos. El tercer fundamento fue adaptar los materiales para la propuesta de la aplicación didáctica en la escuela. Se clasificaron los materiales recopilados haciendo una elección didáctica según el curriculum y se crearon actividades didácticas para la escuela utilizando las TICs.

*Didáctica del patrimonio cultural, Literatura oral, Escuela, TICs, Corpus*

The object of this work was to collect the oral literature based on the cultural heritage of Dima and to propose its application to the school by means of didactic activities. The general lines of this work were divided in three main sections. Firstly, the theoretical frame was created analysing the bibliography. Secondly, new materials were collected, creating new documents. The third fundament was to adapt the materials to the proposal for the didactic application in the school. Compiled materials were classified making a selection according to the curriculum and didactic activities were created for the school using the ICTs.

*Didactic of the cultural heritage, Oral literature, School, ICT, Corpus*

## Sarrera

Gure amama zenak sutondoko aulkian jarririk Dimako ipuin askoren testigu egin ninduen. Zortzi hamarkadaren jabe zen hark inoiz eskean joan behar izanik gabe kontatzen zizkidan Diman entzundakoak, gertatutakoak, garai bateko ipuinak, pasadizoak eta kantak kantatu egiten zizkidan. Bertutedun andrazkoa zen, zekien guztia opari egiteko prest zegoen, kontatzen zuen hura liluragarria zen baina zoragarriagoa kontatzeko zeukan era: beren ahoskera, erregistroa, berbak, moldeak eta forma linguistiko aberats, jagon eta kutsatu bakoak. Nik amamari sarri galdetzen nion gauzen izenei buruz, batari zelan esaten zitzaion, zelan besteari. Jakin minak ninduen beterik. Egun ez ditugun ekintzez ere galdetzen nion sarri, ikazkintzaz eta ikazkinez, txondorren funtzionamenduaz, karobi eta kareaz, artzaintzaz, errota eta errotariez, ehun eta ehuleez. Inguruan ikusi ez arren zapal dutako lurretan egindakoaz jakiteko asmoz, gure arbasoek landutako lurak zelakoak ziren jakiteko. Gerora baina, museoetarako berbategia dela erakutsi didate.

*Amonaren aldia  
hago sutondoan  
haren ipuirik al dek  
ik jaso gogoan?[...]*

*Geroztik ari nauzu  
auts zarrak astintzen  
aiton-amona guztien ipuiak jasotzen  
herriaren pitxiak magalean biltzen  
(Lizardi, 1933)*

Gure amamarena batzen hasi nintzen. Hasiera batean entzule gisara oroimenean gordez, gerora denboran iraupena izan zezan tematuz. Xabier Lizardiren poeman errezitatzen den antzera, gerora, Dimako testiguen auzo eta etxeetatik ibili naiz ipuin eta kontu biltzaile, otzara Dimako herri tradizioz betetzeko asmoz.

Egungo erronka euskararen normalizazio bidea da, euskarak gainontzeko hizkuntzen legez, izaeraz eta nortasunaz goza dezan lortzea. Bide horretan lehen lerroan daudenak, haur, ume eta gazteak dira, eurei baitagokie aurrekarien lekukoa hartu eta gerora euren ondorengoei ematea, bidean ezer utzi barik entregatzea. Osterantzean, lekuko aldaketa hori gertatu ezean, gure aitita-amamekin batera joango zaizkigu lehenagoko pentsamendu eta aberastasunak, ipuinak, kontuak, pasadizoak, magiazko legenda eta mitoak, belaunaldi askotan zehar izandako biziera, mentalitatea eta munduari begiratzeko modua. Azken batean herri oso baten betaurrekoak desagertuko dira.

Horretan, Dimako zaharren jakinez betetako otzarak bide hori egiten lagun dezake. Otzara hau bete zuen lehenengoa gure amama zena izan zen eta behar hau egin bitartean

elkarrizketatutako guztiak gero. Sakontasun handiko otzara da eta herri tradizioan eta ahozko literaturan oinarritutako oro kabitzen da. Helburua hezkuntza arloko ikusmiraz saskia zabaltzea da.

Behar honen aurretik, urte luzez pertsona askoren lanen emaitza oparoak jaso ditu herriak, aurreko ikerlariak inguru honetako etnografia idatzi baitute. Nirea garau txiki bat baino ez da, lur zati txikia solo infinituan, oraindino batu litekeen guztiarekin alderatuz gero, baina bada zerbait. Hemen aurkezten den informazioa atzera erabiltzekoa da, inork ez badakizki ikasi eta erabiltzekoak. Nire eskuetara heldu den guztia nire egin eta nahi duen orori zabaldu eta eskaintzeko. Behar honen helburua Dimako kultura ondarean oinarritutako ahozko literatura batzea eta hori aplikatzeko jarduera didaktikoen bidezko proposamena egitea baita.

Zer ikertu bada, non arakatu baita, gure etnografia esparrua sendotzeko. Behar honen itxaropena Diman ez eze, beste inora ere heltzea da eta denbora tarte mugatu hau gaindituz gerora ere balioa izan eta otzara osatzen duten osagaiak gaurkotzea, erabilera izanik medio.

## **1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera**

Atal hau zazpi azpi ataletan banatzen da. Soziologiarekin hasita, kultura ondarearen nondik norakoak deskribatzen dira gero, umearen garapena eta curriculumaren adierazpena ondoren, hizkuntza aniztasunaren azalpenak ematen dira eta azkenik, Europako, Euskal Herriko eta Dimako aurrekariak esplikatzen dira.

### **1.1. Soziologia**

Christine Moon Estatu Batuetako Pacific Lutheran Universityko psikologia irakasleak gidatutako ikerketa baten ateratako ondorioek erakusten dutenez (2013), gizakia munduratu orduko hasten da entzumena garatzen, umekiak 30 aste inguru dituenean. Haurdunaldiak 40 aste irauten dituenaz, hamar astean umekiak bere ama hizkuntza izango denaren prosodia bereizten du.

Hala, amaren sabel barruan hasita hasten gara gure hizkuntza izango dena entzuten, bereizten eta gerora, jaio eta ondorengo urteetan, apurka apurka etxekoen laguntzaz lehenengo eta ingurukoenaz gero, gure hizkuntza taxutzen.

Lehenagoko etxe giroa aitita-amamek, neba-arrebek eta gurasoek osatzen zuten gehiengorik handiengan, familia nuklear funtzionala deiturikoa zen eredu hedatuena: heterosexualitatea, ugalketa eta ernalketa, ezkontza, seme-alabatasuna eta etxe berean elkarrekin bizitzea ezaugarriak familia giroa<sup>1</sup>. Egun ostera, urte askoan eredu tradizionala izan den familia eredu horren ezaugarriak eta kopurua aldatu egin dira. Gainera, ezaugarri horiek guztiek ez dute zertan batera agertu behar eredu berriak familiatzat hartuak izateko. Badira, seme-alaba bakarreko familiak, guraso homosekualak osatutako familiak, adopziokoak, etnia eta kultura ezberdinetako gurasoek osatutakoak, guraso bakarrekoak etab.

Etxeko transmisio soka jada ez da hain sendoa, estuagoa da etxe askotako soka eta eteteko zorian dago beste zenbaitetakoak. Lehen bada, umeek belaunaldi bi zaharragokoen transmisioa eurenganatzten zuten, etxean etxekoena. Etxeko kultura ahozko tradizioan oinarritzen da, ahozko tradizioaren transmisioan. Etxean jasotzen dira ohiturak, etxean entzun kantak, esaerak, ipuinak. Edo lehen bai behintzat.

Lehen sei urte zeuzkatela joaten ziren lehenengoz eskolara, ama hizkuntza guztiz finkatuta zeukatelarik. Etxeko eredu osoaren jabe zirela joaten ziren hezkuntza formala jasotzera. Etxean aberasten ziren lehenengo, etxeko aberastasunetan busti eta gero, kalean, eskolan, lagun artean, herrian bustitzera irteten ziren. Beste era bateko aberastasuna da egunotakoa. Orain, gurasoek eskolari eskatzen dizkiote kontuak. Etxean irakatsi eta erakutsia behar lukeena eskolan irakasten zaie haurrei, kalea gurutzatzen edota semaforoan oinarritzeko funtzioez mintzo da eskola. Umeak hilabete gutxi dauzkanean haur eskolara joateko eskubidea dauka, osterantzean urte bi dauzkanean eskolara joatekoa. Eskolara hasitakoan oraindik ez daukate ama hizkuntza finkaturik ez eta etxeko hezkuntza moldea ere aldean, baina eskolara doaz.

Eskolak ere aldatu dira, zer esanik ez. Eskolek elebakar izatetik elebidun eta eleaniztun izaterainoko pausua eman dute. Curriculumak (2010:77) adierazten duen legez, “hizkuntza horiek jakinda, aberastu egiten dira gizarte-harremanak eta norberak berezkoak ez dituen testuinguruetan mugitzeko ahalmena eskuratzen da”. Eleaniztunaren ezaugarrietan gailentzen den ezaugarria beren oharren linguistikoa eta trebetasun metalinguistikoa da: hizkuntza gehiago kudeatu behar izateak, arreta

---

<sup>1</sup> Aguado, L. (2010). Familia ereduak gaurko eskolan. *Tantak*, 22 (1), 127-148



handiagoa jartzea eskatzen du eta ondorioz, trebetasun handiagoa garatzen du. Baina eleaniztun izatera iristeko bidea Granelen arabera (2006:49):

La clau, per tant, per a un multiligüisme additiu que proporcione una competència real en les tres llengües a tot l'alumnat, consistirà en una articulació de les llengües que done un tractament prioritari i preferencial a la llengua minoritzada, pel que fa al moment d'incorporació, al temps d'ús vehicular i a l'ús social i administratiu en el centre.

Familia ereduak, hezkuntza moldeak eta transmisio bidea bera ere ez ezik, transmititzen den hori ere, aldatuz etorri da mendez mende. Ipuinen eta horien guztien moduan, berbaera ere aldatuz etorri da. Hizkuntzak aldatuz doaz eta aurrerapausoak emanez. Hori da bada, hizkuntza batek bizirik dirauen adierazgarririk behinena. Hizkuntzen baitako elementuak ere, berbak eurek ere aldatuz doaz, astiro, baina aldatuz. Beraz, guk eskuratzen duguna eta gure asabena zenaren arteko aldea nabarmena da izan. Norberak eskuratzen duen hizkuntza laginak, bestelako bide bat hartzen du hizkuntza helaraziko pertsonak zuten hizkuntza moldeari so eginez gero.

## 1.2. Kultura ondarea

Umekiak garela hasitako ibilbideak baina, bide luzea dauka aurretik. Hizkuntza eta kultura ondarea gure baitan, hazi ahala, ernalduz doaz, gurekin batera. Kultura ondareari, sarri egiten zaio erreferentzia, irrastian, telebistan, aldizkari zein liburuetan, lagunarteko elkarrizketetan etab. Baina kultura ondarea berba potoloa da. Schwanitzen arabera (2002), kulturak gizarteko historiari, teoria filosofikoei eta zientifikoei eta hizkuntzari lotzen gaitu. Artea, musika eta literaturaren ekoizpen artistiko garrantzitsuenekiko familia arteko harremana ere badela dio.

Unesco da Nazio Batuen erakunde bakarra espezifikoki kultura tratatzen duena. Unescok kultura ondareari buruz (2011): Gizakiak gauza, atal, alor batzuk garrantzitsutzat jotzen ditu, hurrengo belaunaldiei eskaintzeko modukoak direla irizten dielako. Beraz, horiek gordetzen ahalegintzen da. Garrantzia hori, gaur egun ekonomikoki balioa duen zerbait delako eman dakioke gai, eremu edo delako horri, emozio batzuk sortarazteko gai delako, hala nola, herrialde bateko parte sentiarazteko gai delako, tradizio bateko parte eginarazteko edo mundua begiratzeko modu bat eskaintzen duelako. Gordetzeko objektuak edo arakatzeko tokiak izan daitezke, eraikin bereziak, kantatzeko kantak edo kontatzeko kontuak. Edozelan ere, gauza horiek guztiek kultura ondarea osatzen dute eta kultura ondareak uneoro aktiboki kontserbatzeko jarrera hartzea eskatzen du transmititua eta gordea izan dadin.

Unescoren arabera (2011), kultura ondare immateriala ere bada, zeina ez den kulturaren adierazpen soilean oinarritzen, baizik eta gizarteko gainontzeko kideei, beste komunitate batzuei edo belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren ezagupen eta tekniketari. Transmisio hori garrantzitsua eta bereizlea da ekonomikoki indartsuak diren kulturentzat zein gizarteko gutxiengo taldeentzat. Kultura ondare immateriala belaunaldiz belaunaldi transmititu da eta ingurugiroaren arabera eboluzionatu ere egin du, iraganaren eta geroaren arteko lotura ezarriz. Kultura ondare immaterialak gainera, norbanakoen arteko kohesioa areagotzen du, identitate sentimendua areagotu eta talde edo komunitate bateko parte sentiaraziz gizabanakoari.

Kultura ondarearen transmisioa bermatzeko, komunitate edo herri horretakoek transmititu egin behar dute, eurek hartu behar dute horren ardura. Hargreavesen arabera, (1999:31): “En muchos países se prevé que los profesores contribuyan a reconstruir las culturas e identidades nacionales”. Izan ere, kultura ondareak bizirik irauteko, kultura horretako kideentzat garrantzitsua izaten jarraitu behar du, praktikatu egin behar dute, erakutsi, irakatsi eta ondorengoek ikasi egin behar dute.

### 1.3. Umearen garapena eta curriculum

Horrek guzti horrek eskolan islatua izan behar du. Eskolak izan behar du lekuan lekuko kultura ondarearen erakuslelhoa. Eskolak ez du aparteko irla izan behar, egungo gizarte eskakizunei erantzuna emateko laguntzailea baizik. Hezkuntza-sistemaren xedea ikasle elebidunak eta horiez gain atzerriko hizkuntza baten jabeak izatea da. Eta hezkuntza-sistemaren erantzukizuna da ikasle guztiek hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzea. Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna horrenbestez bizikidetzarekin irmoki loturik dago. Curriculumaren arabera, (2010:77) “hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna eskuratzeko, hauek ezagutu behar dira: hizkuntzarekin lotutako gizarte-ohiturak, hizkuntzaren kultura-balio eta -alderdiak, eta hizkuntzak testuinguruaren eta komunikazio-asmoaren arabera har ditzakeen aldaerak”. Horretarako, ezinbestekoa da, aipatutako kultura ondarearen transmisioaren bermea, gure aberastasun iturri den aldetik, giza ondarea den euskara eta euskal kulturaren identitatea partekatuz, norbere kultura eta identitate propioaren garapenaren sustatzailea izatea eskola.

Curriculumetik (2010:77): “atzerriko ikasleen atzerri-hizkuntzen kasuan ere, hizkuntza horiei eutsita, bultzatu eta aberastu egiten da hizkuntza anitzeko inguruneen dibertsitatea”.

Egun, ikasle eleaniztunak sortzeko erronka berriaren baitan, ikasle euskaldun eleaniztunak hezi gura dira. Bada, ikasle eleaniztasunak eraiki edo bilatze horretan, ahalik eta hizkuntza maila aberatseneko euskaldun eleaniztunak, autonomo, kritiko, aske eta kompetenteak formatzeko bidea da eskolen egitekoa. Eskolak, gainontzeko edozein hizkuntzak gozaten duen funtzio sozial, akademiko, afektibo zein administratiboak eta mailako estatusa eskuratzen lagundu diezaiotke euskarari.

Hizkuntzen irakaskuntzaren ardura irakasle guztiena da ez hizkuntza irakasleena soilik. Horregatik, hizkuntzei dagozkien helburu, eduki, jarduera eta metodologiak planifikatzerakoan guztien arteko batasuna lortu beharra dago, hizkuntzen banaketa eta indibidualismoan jausi barik.

#### 1.4. Hizkuntza aniztasuna

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuak dioenez (2005:24):

Azken urteotan, eleaniztasunaren kontzeptua gero eta indar handiagoa hartuz joan da Europako Kontseiluak hizkuntzen ikaskuntzari buruz duen ikuspegian. Baina eleaniztasunak ez du hizkuntza aniztasun soila esan nahi. [...] Gizabanakoak hizkuntza baten kultur ingurunean duen hizkuntza esperientzia zabaldu ahala, hasi familia-hizkuntzatik eta gizarte-hizkuntzaraino, oro har, eta beste herri batzuetako hizkuntzetaraino gero (izan eskolan edo unibertsitatean ikasiak, edo zuzeneko esperientziaren bidez ikasiak), hizkuntza horiek eta kultura horiek ez ditu adimeneko gune berezietan gordetzen; aldiz, komunikazio-gaitasun bat garatzen du, hizkuntza arloko ezagutza eta esperientzia guztien bidez eta hizkuntzen arteko harremanaren eta elkarreraginaren bidez. Egoeraren arabera, pertsona batek malgutasunez joko du, gero, gaitasun horren parte bakoitzera, solaskide jakin bakoitzarekin komunikazio eraginkorra lortzeko. Adibidez, solaskideek hizkuntza desberdinak edo dialekto desberdinak erabil ditzakete, eta horrela bakoitzak hizkuntza batean zerbait adierazteko duen trebetasuna eta beste hizkuntza bat ulertzeko duena ustiatuko dute.

Hizkuntza aniztasunean ardazturiko hezkuntza-sistema berbabide izanik, aniztasunari erreparatzen zaioenean, hizkuntza ezberdinen mintzoa izan ohi da orokorrean. Hizkuntzaren alderdi kuantitatiboari erreparatzen zaio kasu gehienetan, ustea baita aniztasuna bertako eta atzerriko hizkuntzen batura dela. Baina aniztasun horrek bestelako alorrak besarkatzen eta biltzen ditu bere baitan, euskararen barietateak hain justu ere, barietate estilistikoak, formalak etab. Barietate ezberdinen uztarketa izanik aniztasun hori.

Eskolek Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren hizkuntza biak eta atzerriko hizkuntza bat erakutsi ez ezik, euskararen barietateen ispilu ere izan behar dute. Aniztasun horren harira, euskarak dituen lekuz lekuko ezberdintasunez, aniztasunaz eta

aberastasunaz jabe daitezen belaunaldi berrietakoak. Mende batzuk atzera atzerritarrak jabetu ziren antzo.

### 1.5. Europa

Izan ere, aberastasun horretaz duela asko jabetu ziren atzerritarrak. Euskal Herrira iritsi orduko, XVI.mendean Europan mendeetan ahoz transmititutakoa idatzira pasatzeko joera abian jarri zen. Giovanni Francesco Straparolak 1563an *Le Piacevoli notti* obran Italiako obrak jaso zituen idatziz. Geroago, 1634.urtean Giambattista Basilek *Pentamerone* eman zuen argitara izenburuz, “ipuin en ipuina” esan gura zuena. Jacob eta Wilhem Grimm anaiek eta Hans Christian Andersensenen lanetan agertzen dira *Pentameroneko* zehetasun batzuk. Obra horretan Perrault frantziarra ere inspiratu zen, 1697an *Historien et Contes du temps passé* argitaratu zuelarik. *Kinder und Hausmärchen* Grimm anaiek 1812an eman zuten argitara eta Andersenek 1837an *Eventyr, fortalte for Born* eta *Nye Eventyr* 1844ean.

Baina batik bat, Erromantizismoak itzuli zituen berriro begiak ahozko tradizioa. Erromantizismoa Europan XVIII. mende hasieran hasi zen garatzen. Eta ahozko tradizioa jasotzeko eta aztertzeko lan handiak orduantxe hasi ziren. Erromantizismo garaian ahozko tradizio transmititua eta ahozko literatura jasotzearen aldeko jarrera zegoen europarren artean. Horrela bada, ahozko herri jakituria eta kultura ondarea gailendu egin ziren: ipuin, esaera, elezahar, errefrauek etab. Europarrak Europa zabalean lanak egiteaz gain, euskal folklorearen aberastasunaz ere jabetu ziren eta inguruotan ere egin zuten lan, orduan sano esanguratsuak izan ziren beharrak eta gaur egun oraindik ere badirenak ezagutzera emanez.

Esanguradun lan horien artean, Wilhelm Von Humboldtek (1767-1835) eginak ditugu 1801ean *Los Vascos. Aportaciones sobre un viaje por el País Vasco*. Euskara eta euskal kultura zientzian sartu zituen eta bultzada handia eman zion euskarari. Halere, beste ikerlari eta zientzialari askorengan euskararen eta euskal tradizioarenganako arreta piztu zuen. Berau izan zen Europako zirkulu linguistikoetan euskararekiko interesa sutatu zuena. Hundbolt euskara ikertu eta aztertzearen beharraz jabetu zen, horrek, Iberiar penintsularen jatorria eta Europarena ezagutzeko bidea argituko zuelakoan. Hundboltek gure lurrotan egindako lanak hiru ardatz nagusi ditu. Alabaina, Euskal Herria eta euskaldunak deskribatu zituen lehenengo. Euskararen analisia eta euskal literatura testuen jarraipen kronologikoa egin zuen ondoan; eta azkenik, Euskal Herriari buruzko

historiaurreko ikerketak eta ikerketa filosofikoak burutu zituen. Gainera, Hundboltek Larramendi, Harriet eta Oihenarten berri Parisen izan zuen bigarren ez Euskal Herrira etorri orduko. Fréreten (1749) existentziaz Hundbolten aipamenei esker dakigu.

Euskal herri-narratiba jasotzen eta nolabait sailkatzen ahalegindu zirenen artean, Cerquanden bilduma da aipagarria, 1874.urtean argitaratzen hasi zena: *Legendes et reeits populaires du Pays Basque*. 1877an Wentworth Websterrek *Basque Legends*, legenda eta ipuin sorta argitaratu zuen. Eta 1883.urtean Julien Vinsonek *Folklore du Pays Basque* liburuaren lehen atalak *Contes et recits* argitaratu zituen.

Luis Villasante Euskaltzainaren esanetan "*No se podría escribir una historia de la lengua vasca sin contar con Van Eys*". Van Eysek (1825-1914) Bonaparte printzeak bezala euskara aztertzen eta ikertzen jardun zuen. Van Eysen lanen artean *Dictionnaire Basque-francaise* 1873koa eta *Grammaire comparée des Dialectes Basques* 1879koa dira aipagarriak. Euskararen gaineko lanak *Revue Critique d'Histoire, Revue Lingüistique* eta *Euskera* aldizkarietan argitaratu zituen, eta Berlinen eman ziren argitara 1886 eta 1896 urte bitartean.

Hugo Schuchardtek oster, euskarazko berba batzuk aurkitu zituen gaztelaniako hiztegi batean, urruneko asonantzia zuten berbak zirela iritzirik, euskararekiko jakin mina piztu zen bere baitan. Urte batzuk beranduago, 1887an argitaratu zuen euskarari buruzko bere lehenengo lana eta beste ehun ikerketa zientifiko gehiago ere ekoitzi zituen 1927.urtean hil zen arte.

Orson Welles (1915-1985) ere izan zen Euskal Herrian, 1955ean. *Around the world with Orson Welles* hainbat dokumentalez osatutako multzo baten baitan, *The Land of the basques* dokumentala grabatu zuen. Theo Vennemanek (1937-) ere hainbat ikerketa egin ditu, beren ikerketen arabera, euskara litzake Europako hizkuntza familia oso baten baitatik bizirik dagoen hizkuntza bakarra.

## 1.6. Euskal Herria

Hala ere, atzerritarrek Euskal Herria aztertzeaz gain, bertakoek ere izan dute euskara eta euskararen ingurukoa hizpide. Arestian aipatutako Erromantizismoaren eragina Euskal Herrira XIX.mende aldera iritsi zen eta baita herri tradizioa biltzeko grina ere. Garai hartan hasita gaurdaino bilketa lan garrantzitsuak egin dituzte bertan bertakoek. Oihenart (1592-1667) izan zen euskal poesia arakatu zuen lehenengotarikoa. Pedro

Pablo Astarloak (1752-1806) euskara aztertu, ezagutu eta sakon ikertu zuen eta *Apología de la lengua bascongada* idatzi (1803). Resurrección María Azkuek (1864-1951) *Cancionero popular vasco* (1918) eta *Euskalerriaren Yakintza* (1935-1947) argitaratu zituen beste lan askoren artean. Aita Donostia (1886-1956), Jose Miguel Barandiaran (1889-1991) eta Lekuonak (1927-2005) egindako lanak ere ezin utzi aipatu barik.

Gaurko egunetan etnografia lanetan aritzeagatik badira gailendu direnak Juan Manuel Etxebarria zeberioztarra eta Jabier Kaltzakorta besteak beste. Eta batze eta euskal tradizio zaharraren ondasun bilketa horretan, Arratia aldean ere badira egin diren lan garrantzitsuak. *Geure berbategie proiektua: Arratia inguruko hiztegia* (2010) Angel Larreak eta Juan Rekaldek egin eta *Arratia inguruko ipuinak* Angel Larrearen eskutik *Geure berbategie* proiektuaren parte (2012). Inguruotakoan artean, Begitu hamabostekaria ere aipatu beharra dago. Baita *Umean zentzune etxean entzune* diska ere, Arratiako aitek eta amek abestutako bertako ume-kantak biltzen dituen. Dimako kanten gainean, Naiara Iza eta Jon Gamindek 2006an Mendebalde Kultur Alkartean argitaratutako lana dugu. Gotzon Aurrekoetxeak eta Iñaki Gamindek ere behar handia egin dute Diman eta inguruetan.

### 1.7. Dimako aurrekariak

Diman bertan ere argitara eman ez diren arren, beste hainbat eta hainbat lan egin dira bertako haria eten ez dadin. Izan ere, Dima herria sano aldatu da urteetan barrena, bai herriari berari dagokionez baina baita hizkuntzari berari dagokionez ere. Dimoztarrak euskal elebakarrak ziren, soldadutza inposatu eta gaztelaniarekin lehenengo hartu emanak izaten hasi ziren arte. Gaztelania gero eta hedatuagoa zen eta horrela bada, gizon eta semeak ez ezik andre eta alabak ere gaztelania ikasten hasi ziren, apurka apurka.

Baina Dima beheak jota utzi zuena gerra zibila izan zen. Gerrak Euskal Herriko bazter guztiak astindu zituen eta horien artean sano suntsitua Dima izan zen. Jendeak alde egin behar izan zuen Dimatik, Dima bonbardatua izango zen abisua jaso zuten herrian eta. Jendea Bilbora joan zen, Burgos aldera, Artzentalesera ihes egin behar izan zuten beste askok.

Herrian gelditu ziren asko eta asko hil egin zituzten. Bueltan, bizirik bueltatu zirenentzat ere egoera ez zen batere gozoa izan, Dima arras suntsiturik aurkitu baitzuten. Etxeetatik

gauzak ostu zituzten, etxeak apurtu, birrin egin, Dimako Bargondia auzoko gurdibidea ere bonba batek desegin zuen. Militarrek base moduan Zumeltza zeukaten, bertan zituzten armamentua, hegazkinak. Ingurukoari bertatik erasotzen zioten.

Gerra ostean, galarazita zegoen euskarazko irakaskuntzarik ematea eta gaztelaniaz ikastera behartuta zeuden dimoztarrak. Frankoren aldeko herritarren bat ere bazebilen herritik eta auzokoak salatzen zituen euskaraz entzutekotan, jan apur baten truke.

Garai latzak apurka apurka baretuz joan ziren eta Dima suspertzen hasia zen. Inguruetan gero eta behar eskaintza handiagoa zegoen eta horrela bada, erdal jendea Dimara urreratzen hasi zen, bertan alokairuzko pisu libre asko baitzegoen. Dimoztarrak ere itzartzen hasi ziren, bertako kulturari garrantzia handiago emanez, kultura berreskuratzeko ahaleginak egiten hasi ziren.

Dena den, urteek aurrera egin ahala egoera aldatuz joan da. Euskarak eraso asko jasan eta pairatu behar izan ditu, indarkeriaz eta bortxaz inposatu zaizkionak. Baina hala eta guztiz ere, kultura eta hizkuntza berreskuratu dira herrian, beharbada ez antzina zuen izaera, nortasun eta indarrez baina berreskuratu berreskuratu da eta horretan dihardu. Guraso erdaldunen seme alabak ere euskaldunak dira, bikote euskaldunek urteon, herriko %75a osatzen dute.

## **2. Corpora eta metodologia**

Amamaren kontalari bertutea betidanik miretsi izan dut. Andre kultura zalea izan da eta ipuin kontalari ezin hobea. Txikitatik miretsi izan ditut bere esanak eta sano gustuko bere adierazteko era. Duela urte batzuk institutuko azken urtean ikerketa lan bat egin behar izan genuen eta amama elkarrizketatu nuen, berak esanekoak batu eta ipuin, kantu eta esaera zahar gisako behar bat aurkeztu nuen ikaskide batekin batera.

Urte bete pasa eta unibertsitateko lehenengo urtean, Hezkuntzaren Teoria eta Historia ikasgaietan, edadeko pertsona bati bere eskola garaiak galdetu behar izan genion eta lana gelan aurkeztu, hezkuntzaren aldaketa nabarmenaz ohartzeko. Orduan ere amama izan zen laneko erdigune. Lan hark amama beste era batera ezagutzen lagundu zidan, beste ikuspuntu baten jabe egin ninduen. Gorriak pasa zituen emakume adoretzu baten testigantza jaso nuen eta.

Gradu amaierako lana egiteko orduan beraz, aurreko lanen jarraipen antzeko bat egitea otu zitzaidan. Gradua bukatzeaz egonik eta maistra ikuspuntutik horniturik, bestelako bira bat eman gura izan diot duela urte batzuk hasitako ibilbideari. Gure amamak kontatzen zituenak batzeko helburuz egindako lana eta amamaren eskola garaiak azaltzen zituenak pentsatzeko jarrerara erabili naute. Horiek abiapuntutzat izanik eta helburu hezkuntza izanda, zer egin nezakeen pentsatu eta lan hau atera da emaitza gisara, batura legez.

Irakasle bideko azken txanpan nagoenez gero, eta unibertsitateko prestakuntza bidean ikasitakoa aldean daramadalarik, lana zabaldu eta hezkuntzara bideratu gura izan dut, eskolara, Dimako eskolara batik bat, bertakoa delako batutakoa. Hala ere, beste eskola batzuetarako adibide legez ere balio dezake, eredu gisara.

Lan hau egiteko bada, lehenik eta behin, orain artean Diman eta inguruotan egin diren lan etnografikoak, ikerketa lan eta artikuluak bilatu (*ikus bibliografia*) eta nondik norakoak zehaztu dira. Eginda dagoenaren eta egin litekeenaren arteko aldeaz oharturik, helburuak zehaztuz. Azken batean, tradizioan oinarritutako kultura, ohitura eta ingurunea zahar berrituz, eskolara eraman, gaurkotu eta nork bere egitea.

Behar hau nola egin den azaltzeko, hiru atal nagusi bereizten dira. Batetik, datuen bilketa, datuen trataera bigarrenik eta datuon aplikazioa azkenik.

### 2.1. Datuen bilketa

2010. urtean Arratia BHI institutuan egindako *Kontu Kontari* lanean jasotakoa oinarri moduan, olgetak, kantzak eta ipuinak batu dira. 2011n Hezkuntzaren Teoria eta Historia ikasgaiaren egindako beharretik eta aurrez egindakotik hartu dira lehenengo erreferentziak, inkestak edo elkarrizketak egiten nora jo jakiteko. Lanotan ardatz legez jardundakoaren aipuetatik ateratako pertsona erreferentziak lortu eta euren gaitasuna jo da informazio bila.

Etxeetara informazio bila joan orduko, inkesta bat sortu da (*1.Eranskina*). Inkestaren helburua ez da informanteak izango direnekin berbaz joaterakoan nahi beste informazio eta jakituria jasotzeko ildo bat izatea baizik. Hori baita helbururik behinena, ahalik eta informazio aberats gehienez hornitutako beharra egitea. Informazioa ahalik eta ordenatuen eta kantitatez ahal bait gehien jaso asmoz sortua da inkesta, beraz. Gainera, informatzaileak eurak ere zuzen gidatu ahal izateko.



Inkestak, lehenengo ataltzat, hasierako hoztasuna hautsi eta giroan sartzeko eskola sasoiak dauka hizpide. Bide batez, eskolan zeundela ia zertan olgatzten zuten galdetzen zaie jarraian eta gogoratzen laguntzeko, zerrenda txiki bateko olgetaren bat esaten zaie. Olgatzeko erabiltzen zituzten kanta eta errexitatuak galdetzen zaizkie gero. Kanten harira, umeei kantatzen zitzaizkienak (eurekin olgatzeko, eurak lokartzeko) eta jai egunetan kantatzen zituztenak galdetzen zaizkie. Inkestaren amaieran ipuinei buruz galdetzen zaie: animaliei buruzkorik dakiten, otsoenik, sorginenik etab.

Elkarrizketok 2013ko abenduan hasi eta 2014ko apirilera artean egin dira, Dimako auzo eta etxe batzuetan. Elkarrizketatutakoak, denak izan dira andrazkoak eta 1940 baino arinago jaiok: M.I.A., T.A., A.A., C.A., M.B., R.B. eta M.J.E. Datuak biltzeko eta transkripzioak egiteko, bideo kameraz grabatu dira elkarrizketa guztiak, behar honen zuzendariaren laguntzaz egindako elkarrizketa salbu. Azken hori grabagailuz grabatu baita.

## 2.2. Datuen trataera eta analisisia

Datuak euskarri teknologikoen bidez tratatu dira. Grabatutakoa ordenagailura pasatu da eta audioak *Cool Edit Pro* programaren bidez ebaki dira. Bideoak ostera, osotasunean tratatu dira. Audio zatiak eta baita bideoak ere banan-banan ordenagailu batean entzun eta bigarren batean idatzi dira, lehenik eta behin transkripzio zuzena eginez. Esandakoa esandako moduan idatziz ezelango ekarpenenik egin gabe.

Transkripzio zuzen eta zehatzak irizpide batzuen arabera berridatzi dira. Bizkaiera jasoan egin dira berridazketok, Dimako azpieuskalkia alboratu barik, euskara moldeak errespetatuz uneoro eta baita informatzaileek erabilitako berbak ere.

Olgetak ordena alfabetikoan ordenatu dira, errazago bilatu eta aurkitzeko. Kantik lau ataletan banatu dira: lo kantik, olgeta kantik, errexitatuak eta jai egunekoak. Lau azpi atal horiek izan dira hasieran finkaturiko multzoak eta beste kanta asko batu diren arren, ez dira behar honetan aurkezten, ez baitituzte hasieran finkatutako baldintzak eta helburuak betetzen. Kantik ere alfabetikoki ordenatu dira, jai egunekoak izan ezik. Jai egunekoak, egutegiaren arabera ordenatu dira, urte hasieratik bukaerara arteko ordena kronologikoan. Eta ipuinak ere alfabetikoki ordenatu dira, izenburuei erreparatuz.

### 2.3. Aplikazioa

Dimako tradizio zaharrean oinarrituta informazio ugari eta aberatsa batu bada ere, hezkuntzara begira aprobeitza daitekeena eta baliagarri dena sartu da behar honetan, gainontzekoa jaso bai baina baztertu da. Behar honek hezkuntzari begira izan ditu jarriak begiak hasieratik, ikerketa lanean hasitakoa eskolarako aplikazio gisa zuzendua baita.

Egunoa teknologia berrien gizartea izanik, euskarri teknologikoen bidez eskolara begirako trataera eman gura izan zaie jasotako datuei. Horretarako, web orri bat eraiki da, non informazio guztia idatziz, bideo eta argazkien bidez azaltzen den.

Web orria HTML editore baten bidez sortu da, <https://www.1and1.es/> webgunean. *Hasiara* izenburupean web orriaren sorreraren zergatiari buruzko informazioa ematen da. Jarraian *eskola garaiak* deituriko atala dago, zeinetan elkarrizketatutako andre baten bideoa eta kontaturiko testigantza azaltzen diren. *Olgetak* atalaren barnean, olgetak agertzen dira azalpenez eta irudiz lagundurik. *Kantak* atalak beste lau azpi atal dauzka, arestian aipatutakoak, *lo kantak*, *olgeta kantak*, *errezitatuak* eta *jai egunekoak*. *Ipuinak* atalak jasotako ipuinak aurkezten ditu. Hurrengo atala *jarduerak* osatzen dute. Bertan, ikasleek egiteko moduko jarduerak daude, era dinamikoan, atsegin eta dibertigarrian Dimako kultura ondarea, Dimako tradizioan eta ahozko literaturan oinarritutako ikaskuntza jaso eta praktikan jartzeko jarduerak dira. Jarduerok, *Ardora 6.6* [http://webardora.net/index\\_cas.htm](http://webardora.net/index_cas.htm) aplikazio informatikoaren bidez sortuak dira. Azkenik, harremanetarako lekua irekitzen da, mezu bat bidaltzeko aukera zabalduz. Bertatik, inork ekarpenik egin gura izatekotan egin ahal izateko.

### 3. Lanaren garapena: datuen analisisa

Behar hau egiteko bildutako informazio osoa, aurretiaz azaldu bezala, irizpide batzuen arabera aukeratu da. Behar honetarako baliagarri iritzi da eskolara begira umeen ikas prozesua erraztuko duen eta Dimako tradizioan oinarrituz ahozko literaturako parte den ikasketa oro.

Jaso eta aurkezten diren datuak seme-alabak dituzten dimoztarrei, eskola komunitate osoari eta eredu legez balio diezaioketen edonori zuzenduta daude. Material aproposa da

hizkuntza, kultura eta ingurunea transmititzeko. Batetik material zuzena dago, jasotakoa; eta beste alde batetik jasotako horrekin sortutako jarduera didaktikoak.

Materialak literaturarekin lehenengo kontaktua izaten laguntzen du, ahozko literaturarekin hain zuzen ere. Gerora, norbanakoaren gustu eta aukeren arabera da zale egin nahiz ez egitearen hautua, baina zaletasun hori sustatzeko aitzakia paregabea da txikitxoentzat, hazi ahala, adin ezberdinetakoentzat material ugari dago. Jarduera didaktikoak euskarri teknologikoen bidez sortuak eta egitekoak dira. IKTak modu eraginkorrean erabiltzeko jarduerak dira, ikasleen aniztasunari erantzuten dietenak. Leku eta denbora antolaketa ezberdinei lotuak eta testuinguru eta ingurune ezberdinei isla egiten dietenak. Argitara emandako web orriari daudenez gero, edonork erabil ditzake, edonon eta noiznahi.

Hizkuntza da zuzen zuzenean lantzen den irakasgaietako bat. Informazioaz gain, lekuko lexikoa, euskal egitura zuzen eta fidagarriak eta sendotasunezko azalpenak ere jasotzen dira. Herriko bertako aditzak entzun, irakurri, landu eta idazteko aukera opatzen zaie umeei, bertako ahoskera eta azpieuskalkiaren berri jasotzeko.

Adin guztietakoek parte har dezakete, umeen garapen psikologiko zein hazte prozesu ezberdinetarako moduko informazio eta jarduerak baitaude. Baina hizkuntza ez ezik, behar honek, eskolan lantzen diren gainontzeko irakasgai guztiak ere besarkatzen ditu. Zuzeneko eran edo zeharka, baina irakasgai guztietan lantzeko modukoak dira materialok era batera nahiz bestera. Hizkuntza ardatz izanik matematika, musika, heziketa fisikoa eta ingurunea ere lantzen dira.

Matematika *Lehenengotxu hori* (4.Eranskina, 4.2.5) kantan lantzen da, esaterako. Izan ere, izendatzaileen bidez, zenbakiak jartzen zaizkie atzamarrei, zenbakien ordena lantzen da. *Txankolinke* edo *Txankorinke* (3.Eranskina, 3.11.) olgetan zenbakiak marraztu eta batetik besterako saltoak egiten dira, beraz, hor ere, zenbakiak lantzen dira, psikomotrizitatea eta gorputz adierazpenaz gain. *Soka saltoan* (3.Eranskina, 3.9.), antzekoa, saltoak zenbatu eta gorputzaren koordinazioaren beharra nabarmentzen dira saltoak egiterakoan. Egunerokotasunean, matematikari hertsiki loturiko egoerak ere aurkezten dira olgetetan, *Denderitas* (3.Eranskina, 3.2.) olgetan esaterako. Bertan salerosketen bidez prezioen arteko eragiketak egiten dira.

Lateralitatea *Eragiozu* (4.*Eranskina*, 4.2.3.) kantan lantzen da bata eta bestea ezberdintzen direlarik, esku bat lehenengo eta bestea bigarrenik eraginez. Ahotsa eta gorputz adierazpenaren bat-batekotasuna eta aldiberekotasuna ere lantzen dira bertan. Eskuen abilezia eta trebetasuna eskatzen duen jolas bat ere bada, *Kunak eitera* (3.*Eranskina*, 3.7.) olgeta. Hari bat eskuetan bilduz eta kide bi edo gehiagoren arteko elkarreagin eta elkarrekintzaz, irudi eta forma ezberdinak sortzen dira, auto-kontrola eta ekintza burutu orduko pentsatzeko jarrera sustatzen dira.

Umeen umezaroko parte diren egoerak ere aipatzen dira, *Sagu, saguzarra* (4.*Eranskina*, 4.3.3.) erreztatuan, kasu. Horrek, umeari hagina jaustean zer egin erakutsi eta zer esan dezakeen irakasten dio. Umeari gertatutakoa azaltzeko bertako era da, inguruneko parte dena.

Eskola ibilbide osoan zehar, Santa Ageda abesten da eta beronen Dimako bertako bertsioa ikasteko *Santa Ageda* (4.*Eranskina*, 4.4.4.) bertsoak aurkezten dira. Jai egunei lotuak ere jai eguneko kanta guztiak. Zein egunetan zer ospatzen zuten jakin eta oraindik ere ospatzen bada erabil daitezke. Historia edo iraganaren eta orainaldiaren arteko ezberdintasuna eta aldea ikus daiteke, beraz. Horiek azaltzeko, adizkien denborak ikas daitezke, proiektu gisara azalduz. Kantetatik abiatuz aditz formak, denborak, moduak eta pertsonak ikasteko. Proiektuen bidezko ikaskuntza prozesua zeharo erabilgarria litzake, eurek baitira jakintza arloaren eraikitzaile.

Lexiko zehatza ere ageri da, ipuin ezberdinetan esaterako, lanpostu ezberdinei egiten zaie aipua: *Maisue* (5.*Eranskina*,5.5.), *joskilea* (5.*Eranskina*, 5.9.), *kridea* (5.*Eranskina*, 5.10.). Gurdiaren lexikoa eta berorren atalak ere azaltzen dira *Txori buru handi* edo *Txibilibilinke* (3.*Eranskina*, 3.13.) olgetan. *Txirintxaketan* (4.*Eranskina*, 4.3.4.) kantan animalien izenak azaltzen dira, Dimako landa eta basoetan aurki daitezkeen animaliak hain zuzen ere: *akarra*, *astoa*, *azagarie* eta *erbie*. Familia arteko sare eta izenak ere erakusten dira kantetan *Aitite dala kukulunberde* (4.*Eranskina*, 4.1.1.) eta *Txikitxu polit hori* (4.*Eranskina*, 4.1.4.) kantetan eta *Etxetxoka* olgetan (3.*Eranskina*, 3.3.): *aitite*, *amama*, *aite* eta *ama*. Eta horiei lotuak *role-playinga*, *Etxetxoka* (3.*Eranskina*, 3.3.) olgetan. Gainera polisemia ere lantzen da *Dendakoa* (5.*Eranskina*, 5.3.) ipuinean, zor berbaren gainekoa.

Ipuinetan gaztelaniako lexikoa sarri agertzen da. Horrek hizkuntza minorizatuaren egoera azaltzen du. Gaztelania orduko gizartean sartu eta hark gizartean zer suposatu

zuen azaltzen da zeharka, lexikoaren eskutik datoz, soldadutza egin behar izatearena, gizartean zegoen gosea etab: *Aite eta semea* (5.eranskina, 5.2.), *Erratue* (5.eranskina, 5.4.), *Ferietik bueltan* (5.eranskina, 5.6), *Krideana* (5.eranskina, 5.10.) eta *Soldadu joan zana* (5.eranskina, 5.12.), ipuinetan.

Izendatukoez gain, psikomotrizitatea (olgetetan), musika (kantetan), gorputzaren adierazpena eta ahoskatzea (ipuinetan) ere lantzen dira, zuzen zuzenean.

Material honetako edozein atal abiapuntutzat harturik, asko dira jarduerak, ekintzak, unitate edo sekuentzia didaktikoak sortzeko aukerak. Diseinatu eta aurrera eramatea besterik ez dago, abantailak eta aldekoak begi bistakoak dira eta. Lan proiektuak, jakintza alor arteko proiektuak, atazak gauzatzea eta problema baten ebazpena izan daitezke horietako batzuk. Ikaskuntza kooperatiboa martxan jartzeko ere balio dezakete behar honetako informazioek eta testuek.

Gainera, hizkuntza izanik zuzenen eta gehien lantzen den alorra, hizkuntza bera eraginkortasunez erabiltzerakoan, hainbat gaitasun baliatzen ditu hiztunak. Horietako gaitasun batzuk hizkuntza bakoitzean ikasi behar dira baina badira beste batzuk, hizkuntzen artekoak direnak, ez direnak hizkuntza bakoitzerako espresuki ikasten. Hizkuntza bakoitzean ikasi beharrekoak eta gaitasun konpartituak bereizi egin behar dira eskolako lana horren arabera antolatu ahal izateko. Hizkuntzen arteko kompetentzia erkideak: testu generoak (egitura, ipuina, pasadizoa, eleberria), idatz- eta irakur-estrategiak (hipotesiak, laburpena, epaia, asmoa) informazioa prozesatzeko estrategiak (informazioa bilatzea, tratatzea) dira.

Material honen bidez gero beste hizkuntzetara transferi eta gainontzekoekin konparti daitezkeen gaitasunak ikas daitezke: Euskara estandarrera, gaztelaniara, ingeles zein frantsesera, esaterako.

Cumminsen arabera, psikolingustikatik, (1986), interdependentziaren printzipioari dagokionez, hizkuntza batean ikasitakoa beste hizkuntza batera transferitzen da baldin eta motibazioa eta esposizioa gertatzen badira. Motibazio eta esposizio hori, IKTen bidezko jardunean aurkitzen da, transferentzia zuzena gerta dadin. Pertsona elebidun edo eleaniztun batek, bere konfigurazio linguistiko propioa du, hizkuntzak aldi berean eta etengabeko harremanean dabilzalako. Baliabide hori erabiliz, ikasle euskaldun

eleaniztunak hezi daitezke, Dimako azpieuskalkian trebatuz oinarrian eta dakigunetik ez dakigunera abiatuz (Goikoetxea, 2000:84).

#### **4. Emaitzak eta ondorioak**

Behar honek bere soinean ikerketa lana (Diman jasotakoa) eta eskolarako aplikazioa (web orria) daramatza jantzirik. Gainera, jarduera ekintzaileak aurkezten ditu, jasotako materiala abian jartzeko proposamenak luzatuaz. Beraz, ondoriorik behinena beharra bera da, beronek eskaintzen baitu jasotako guztia eta beronen aplikagarritasuna, eskolari begirakoa, aurkezten du.

Lana harilkatu bitartean, mundua erreparatzeko eta ulertzeko modu bat ezagutu dut, ez da berria izan niretzat baina hausnartu egitera eraman nauena bai. Ezaguna izan da niretzat eta hurbilekoa, ingurunea aldeko izan dudalako. Ikerketa lanak bere aldetik, Dimako mentalitatearen ikuskera ezagutzen lagundu dit, olgeta, kanta eta ospakizunei esker. Horren baitan, hertsiki loturik eta banandu ezinik urte luzez egon den eta oraindik ere badagoen erlijio kristauaren eragin sakonaz ohartu naiz. Lehenagoko kanta asko eta jai egun guztiak erlijioaren bueltan eraikitakoak baitira.

Jakin badakigu, ingurunea oso arin aldatzen dena, egutegiko orriek aurrera egin ahala atzean gauza asko uzten dituztena, baina horrek ez du ukatu behar nondik gatozen, horrek ezin dio ukatu herri bati beren jatorria. Horregatik, gauza praktikoak dira nik aurkitutakoak. Behar honek anitz segida izan ditzake, aberastu egin daitekeelako. Tradizio bat dago eta ni neu ere bertako alaba naiz, beste belaunaldi batekoa baina, tradizio ikertzaitetik jasotako ondarea eta herri tradizio zati bat, ale bat, garau bat batu eta hezkuntzan integratzeko modua bilatu dut IKTeen bidezkoa. Hots, jasotako ale hori eskolan ereiteko modua proposatu dut.

Behar hau egin ahala gainera, bestelako ikasketa batzuk ere neureganatu ditut. Gauza asko galdu direla eta galdu egin behar direla nahi eta nahi ez ikasi dut, ikazkintza, karegintza... baina ez dago moldeak zertan galdurik. Jasotakoa gaur egunera moldatu beharra dago, gaur egungo ezaugarriak aintzat hartuz.

Baliabide teknologikoak erabiliz gauzatu da beharra, gordetzeko sistema merkea delako, sareak materialen iraupena bermatzen duelako eta umeek teknologia berriekin duten

kontaktu goiztiarra kontuan hartu delako. Teknologia izanik transmisio bidea, errazago helaraziko zaie material eta informazioa umeei eta gazteei. Gainera, euskarri teknologikoek ahalbidetzen dute gerora ere web orri berdinetik beharrarekin jarraitzea eta osotzen segitzea.

Zer egin eta zer hori nola egin ere ikasi dut, hau da, informazioa jaso ondoren informazioa eta datuak nola tratatzen diren ikasi dut. Aurretiaz unibertsitateko lau urteotan batez ere euskarri teknologikoen erabileran aurrerapauso nabarmenak egin ditut, bigarren mailan esaterako, blog bat sortu behar izan genuen eta orduan ere ahozko herri tradizioarekin lotutako blog bat sortu nuen sarean, bertsolaritzaren gainerako. Beraz, euskarri teknologikoen bidez behar egitea eta oinarria kultura ondarea eta herri tradizioa izatea ez dira berriak izan niretzako. Benetan nire interesetatik abiatutako lan bat osatu dudala uste dut eta horrek, beharra gustura, autonomiaz eta ekimenez egitera erabili nau.

Era berean, web orria sortutakoan eta bertan jarduerak atxikitzerakoan zenbait arazo eta oztopo gainditu behar izan ditut. Zenbait unetan galdu xamar ibili banaiz ere, lan eginaren ondorioz horiek gainditzea lortu dut eta azken emaitza ekoiztera iritsi.

Behar honek heldutasunez dotatu nau. Unibertsitateko azken urte honetako espezialitatean, Hizkuntzen Aniztasuna Eskolan minorrean zehar ikusi eta ikasitakoa praktikan esperimintatzeko abagunea izan dut. Azken baten, hizkuntza bera da nik landutakoa eta guztiz lotura estua izan du minorrean eskuratutako gaitasun eta trebetasunekin. Hizkuntza bat nola erakutsi nola transmititu daitekeen hausnartu eta praktikan jartzeko besteko autonomia eta gaitasuna izan dut eta hori azken urte honetan jasotako jakintzari esker planifikatu ahal izan dut.

Etxeko euskara, gurea, bertakoa, baloratu egin behar dugu eta hori erakustea da bidea, behar honek egiten duena, bide hori erakutsi hiztunek galdu ez eta erabil dezaten. Hizkuntza hori baita pertsona, auzoko, herritar legez definitzen gaituena. Hala ere, edadedun jendearengandik asko daukagu ikasteko eta luzea da bidea. Behar asko eginak dauden arren oraindik ere osotzeko beharra lan askok dute eta horiek gauzatzen joatea da aurrerantzeko proposamena: Olgetak eskoletan egitea, kanta guztiak kantatuz jasotzea, musika instrumentuz kanta laguntzea, ipuin kontalari lana egitea etab.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

- 1&1 Internet S.L.U. (2014). 2014-05-31an hartua, hemendik: <https://www.1and1.es/>
- Adobe Systems Incorporated. (2006). *Cool Edit Pro*. [Ordenagailuko programa].
- Aguado, L. (2010). Familia ereduak gaurko eskolan. *Tantak*, 22(1), 127-148. 2014-03-16an hartua, hemendik: <http://www.ehu.es/ojs/index.php/Tantak/article/view/2201/2270>
- Ardora 6.6. (2008). 2014-04-18an hartua, hemendik: [http://webardora.net/index\\_cas.htm](http://webardora.net/index_cas.htm)
- Arejita, A. (2005). *Idatzizko eta ahozko tradizioa gaur egungoari buruz*. 2014-04-16an hartua, hemendik: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/65844.pdf>
- Arratiako gurasoak (2011). *Umean zentzune etxean entzune*. [Diska]. Gasteiz: Ediciones IBD.
- Azkue, R.M. (1935-1947). *Euskalerraren yakintza*. 2014-03-01ean hartua, hemendik: <http://bvpb.mcu.es/es/consulta/registro.cmd?id=412303>
- Biguri, K. (1990). Euskal ahozko literatura tradizionalari buruzko ikerketa XX.mendean. *ASJU*, 24(1). 2014-04-16an hartua, hemendik: <http://www.ehu.es/ojs/index.php/ASJU/article/view/8123/7275>
- Bossong, G. (1984). Wilhelm Von Humboldt y Hugo Schuchardt: dos eminentes vascoólogos alemane. *Arbor (Ciencia, pensamiento y cultura)*, 46 (467-468), 163-182. 2014-02-28an hartua, hemendik: [http://www.rose.uzh.ch/seminar/personen/bossong/boss\\_bask\\_46.pdf](http://www.rose.uzh.ch/seminar/personen/bossong/boss_bask_46.pdf)
- Cummins, J. & Swain, M. (1986). *Bilingualism in education: Aspects of theory, research, and practise*. Londres: Longman group.
- Ducar, I., Eguskiza, N., Estrada, L., Etxegarai, L., Fernandez, M., Garcia, L., Goiriena, N. & Gomez, J. (2011). *Kultura-Ondareari buruzko Modulu Lana*. Leioa: Argitaratu barik.
- Eguskiza, N. & Zurinaga, N. (2010). *Kontu kontari*. Arratiako Institutua: argitaratu barik.
- Eguskiza, N., Goti, P., Iturrate, A. & Mimentza, G. (2014). *Pecha Kucha: Dima*. Leioa: Argitaratu barik.
- Etxaniz, X. (1977). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. (Doktorego tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz.
- Etxebarria, J.M. (2003a). *Bizkaialdeko ipuin esaundak*. Bilbo: Ibaizabal Argitaletxea.
- Etxebarria, J.M. (2003b). *Euskal urtea ohituraz betea*. Bilbo: Ibaizabal Argitaletxea.
- Etxeberria, Z. (1992). *Euskal ipuin harrigarriak*. 2014-02-24an hartua, hemendik: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50119.pdf>
- Eusko Jaurilaritza. (2005). *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*. 2014-01-10ean hartua, hemendik: [http://www.habe.euskadi.net/contenidos/informacion/oinarrizko\\_kontzeptuak/es\\_9716/adjuntos/europako\\_markoa.pdf](http://www.habe.euskadi.net/contenidos/informacion/oinarrizko_kontzeptuak/es_9716/adjuntos/europako_markoa.pdf)
- Gaminde, I. (2007). Olgetan-Benetan: Umezaroaren Lexikoa Bizkaian (II). *Euskalingua*, 11, 49-66.
- Gaminde, I. (2006). Olgetan-Benetan: Umezaroaren Lexikoa Bizkaian (I). *Euskalingua*, 9, 110-135.
- Gaminde, I. (2005). *Sorginakaz jantzan*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea.
- Garmendia, J. (2007). *Juegos infantiles*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Goikoetxea, J.L. (2000). *Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian*. (Doktorego tesia). EHU, Bilbo.



- Gómez, R. (1996). La aportación de W. von Humboldt a la gramática vasca. *Eusko Ikaskuntza*, 41(2), 607-622. 2014-02-28an hartua, hemendik:  
<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/41/41607622.pdf>
- Granell, V.P. (2006). *El tractament de les llengües en un model d'educació plurilingüe per al sistema educatiu valencià*. Valentzia: Generalitat Valenciana.
- Hargreaves, A. (1999). *Profesorado, cultura y postmodernidad. (Cambian los tiempos, cambia el profesorado)*. Madrid: Morata.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. (2010). *Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu kurrikularrak Euskal Autonomia Erkidegoan*. Vitoria-Gasteiz: EJAZN.
- Igerabide, J.k. (2010). *Tintazko mingainak: ahotik idatzira*. (63-72) 2014-04-16an hartua, hemendik:  
<http://www.mintzola.com/elkargunea/ahoa-bete-hots-jardunaldiak/artikuluak/2010-ahoa-bete-hots-liburua.pdf#page=63>
- Iza, N. & Gaminde, J. (2006). Dimako kanten gainean. *Euskalingua*, 8.
- Kaltzakorta, J. (1999). *Laratzaren gaineko esaera zahar, igarkizun eta sineskerak*. Bilbo: Labayru ikastegia. 2014-04-26an hartua, hemendik:  
<http://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/308959.pdf>
- Kaltzakorta, J. (1992). Bizkaiko herri-ipuak idatziak. *Euskera agerkaria*, XXXVII (2.aldia), 477-496.
- Lakar, M., Arburua, P., Aranguren, G & Luri, I. (2014). *Xaldun Kortin Jolastu Gurekin*, Labrit Multimedia: Iruñea.
- Larrea, A. & Rekalde, J. (2010). *Arratia inguruko hiztegia: Geure berbategie proiektua*. Bilbo: Ediciones Beta.
- Larrea, A. (2012). *Arratia inguruko ipuinak*. Bilbo: Beta III Milenio.
- Lizardi, X. (1970). *Biotz-begietan*. Zarautz: Itxaropena argitaldaria.
- Mara, P. (2013). *El pentamerón de Giambattista Basile. "El cuento de los cuentos", la obra de primer recopilador europeo*. 2014-04-14an hartua, hemendik:  
[http://suite101.net/article/el-pentameron-de-giambattista-basile-a9001#.U3jgJtJ\\_uE4](http://suite101.net/article/el-pentameron-de-giambattista-basile-a9001#.U3jgJtJ_uE4)
- Moon, C., Lagercrantz, H. & K Kuhl, P. Language experienced in utero affects vowel perception after birth: a two-country study. *Acta paediatrica* 2013 102, 156-160. 2014-02-07an hartua, hemendik:  
<http://ilabs.uw.edu/sites/default/files/2012%20Moon%20et%20al.pdf>
- Otaegi, L. (1993). *Lizardiren poetika pizkundearen ingurumariaren argitan* (Doktorego tesia). Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Schwanitz, D. (2002). *La cultura. Todo lo que hay que saber*. Madrid: Taurus, Santillana.
- Unesco. (2011). *Patrimonio cultural inmaterial*. 2014-05-12an hartua, hemendik:  
<http://www.unesco.org/culture/ich/doc/src/01851-ES.pdf>
- Ugarte, J.D. (2003). Wilhelm Von Humboldt y su visita al País Vasco en 1801, con mención especial de Bilbao. *Eusko Ikaskuntza*. 2014-04-15ean hartua, hemendik:  
<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/48/48313328.pdf>
- Urra, A. (2014, otsailak 6). El lingüista Jan van Eys y su estudio del euskera. *Noticias de Navarra*. 2014-03-20an hartua, hemendik:  
<http://www.noticiasdenavarra.com/2014/02/06/opinion/cartas-al-director/el-linguista-jan-van-ey-y-su-estudio-del-euskera>

- Vennemann, T. (2002, ekainak 9). El euskara es la única lengua superviviente en Europa de toda una familia idiomática. *Gara*. 2014-04-18an hartua, hemendik: <http://www.ehu.es/mediaberri/KulturaGizartea/Teho%20Vennemann%20Euskera%20Europa.htm>
- Welles, O. (2012, urriak 18) The Land of the Basques - Orson Welles Full documentary with Basque subs. [Bideo artxiboa]. 2014-01-31an hartua, hemendik: <https://www.youtube.com/watch?v=hJIKx3NPUTs>
- Zertu kultur elkartea. (2002). *Begitu*. Zertu kultur elkartea: Artea.